



Pedro Ma Arriola Alberdi

2023ko azaroaren 30ean hil zen, 93 urte zituela.
Familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Antonio Bastida Txurruka *"Aranbeltz"*

2023ko abenduaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Betirako izango zaitugu gogoan.



Maria Izagirre Arrizabalaga

2023ko abenduaren 8an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Mari Ansola Ansola

2023ko abenduaren 6an hil zen, 73 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Betirako izango zaitugu gogoan.

Etxekoak



Patxi Opakua Elorza

2023ko abenduaren 6an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Bittor Usatorre Juaristi

2023ko abenduaren 11n hil zen, 67 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Argitaratzailea:



Izaro Etxegibel Sorraluze

Euskara teknikaria

Bidea



*"Ez dute elkar ezagutzen,
ez zaio inori ardura"*

Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Gorri, laranja, hori, marroi errepide ertzeko arbolak; hosto eroriz eta putzuz betea bidea; hezetasuna. Errekaren eta trenbide zaharraren aldamenean eraiki zuten, estua eta bihurtuz josia. Eder dago parajea eguerdian, hasi baitira eguzki printzak pinuen artetik agertzen, lotsati, eta argitu baitituzte emari txikiko ur-lastera eta bidea.

Auto gutxi ibiltzen da, lau doaz orain bata bestearen atzetik, errepidean zehar:

Lehenengo autoan, lanera doa berrogeita hamar urteko gizasemea, bakarrik. Albistegia entzuten ari da irratian, zigarroa eskuan, eta kafe usaina ahoan. Arratsaldeko txanda du aurretik. Azkar doa, bidea buruz baleki legez, badaki jakin.

Hiru doaz bigarrenean, hirurogeitaka urteko senar-emazteak eta ile urdindun emakume edadetua. Laka usaina. Hiruretako batek ez daki elkarrekin egingo duten azken bidaia denik. Aurreko jesarlekutik, alaba galdezka ari zaio amari ea pozik dagoen, esan nahi dio ederra dela doazen lekua, bere antzekoak izango dituela lagun eta ondo zainduta egongo dela; konturatu orduko, bisitan direla. Gidaria isilik doa, amaginarrebarekin bitzako oroitzenak buruan; artean, atzekoaren buruak non dagoen ere ez daki.

Aspaldi ikusi ez duen lagunarekin bazkaltzera doan emakumeak gidatzen du hirugarren autoa. Urduri doa, gau guztian lorik egin gabe, pozik, perfume usaina eta irribarrea ezpain gorrietan. Gazteago zireneko musika irradian, gustuko du ozen kantatzea.

Mutil gaztea gidari laugarrenean, emakume bat du aldamenean. Lore sorta bat daramate atzeko jarlekuan, zinta itsasgarria eta artaziak. Barruan gordetako saminak malko itxura hartzen du amasemeen begietan; ixiltasuna, gortzeraino. Autotik jaitsi dira biak, eta loreak jarri dituzte bihurtzeko seinalean, moto istripuan hildako aita-senarraren omenez.

Bide beretik doaz zazpiak, zapata ezberdinak soinean. Ez dute elkar ezagutzen, ez zaio inori ardura.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Errespetua nori edo zeri

Beste askotan bezala, azaroaren 29an ere kafea hartzera joan nintzen Kultur Kafera. Sartu, eta gazte bat, atzean koadro batzuk zituela, azalpenak ematen ari zen. Beste batzuk, bere aurrean, esaten ari zena entzuten, laukote bat oso haserre jarri zen arte gaztea euskaraz ari zelako. Ez omen dago horretarako eskubiderik, eta euskaraz egiten duenak gaztelaniaz ere egin behar omen du, errespetuagatik besterik ez bada ere; izan ere, laukoteko batek edo batzuek ez zuten ezer ulertzen, antza. Eta kexatu ziren, bai, ozen-ozen, denok entzuteko moduan, denok entzun genezan ahaleginak eginez, eta besteok hizlaria zer esaten ari zen entzun ezinda utziz.

Ni neu gustura joaten naiz Kultur Kafera azkenaldi honetan, eta arrazoaia, hain zuzen ere, euskararen presentzia da. Ez dut esango asko ala gutxi entzuten den, baina entzuten da. Bada nahikoa leku Elgoibarren gaztelania entzuteko eta gaztelaniaz aritzeko, eta ez dut uste gaztelaniazale batek inolako arazorik izango duenik gure kaleetan bere gustuko lekua eta unea topatzeko. Eskertuko nioke niri beste hainbeste leku erakutsiko balizkit euskara hutsean aritzeko modukoak. Eta zer esan errespetuaren inguruan: hizlariarekiko eta hura entzuten ari zirenekiko errespetuz, isilik geratu ginen, euskararen kontrako sermoi amaigabea, nola edo hala, irentsita. Euskaldunok sarri egiten dugun moduan.

E. S.

Zorionak Haritz

50. urteurrena bukaerara heldu baino lehen, Plazara Dantzara ikastaroetako kideok Haritz dantza taldea zoriondu nahi dugu. Zorionak, eta eskerrak eman Haritzeko lagun guztiei, beraiek baitira, Musika Eskolarekin batera, urtez urte gure ikastaroak antolatzen dituztenak eta beraiek gure irakasle eta dantza bideratzaile lanak burutzen dituztenak.

Zorionak Haritz Dantza Taldeari horren ibilbide oparoarengatik eta Elgoibarko kultur gintzan betetzen duen tokiarengatik, mende erdi honetan

makina bat jendek egin duen lan eta ahalegin zintzoaren emaitza.

Eta eskerrak; eskerrak zuen jakituria gurekin partekatzeagatik; eskerrak Jael, Maialen, Ane, Ainhoa, Mikel, Amaia, Maddi, Leire,... eta urte hauetan guztietan irakasle izan zaituztegun lagunei; eskerrak jardunean den ikastaroan astero zuen bi ordu adeitasunez oparitzen dizkiguzuen Eider eta Gaizkari; eskerrak erakutsi dizkiguzuen dantza guztiengatik, eta jai eta erromerietan zuei eskerrak balia ditzakegun irakaspengatik; eskerrak dakizuena zuentzat gorde orde zaletasun hutsez hurbiltzen garenoi eskuzalbaltasunez helarazteagatik, eta dantzak herri baten nortasunean duen garrantziaz ohartarazteagatik; eskerrak guztia pazientzia eta adeikortasunez egiteagatik; eta eskerrak, batez ere, Plazara Dantzara egitasmoa abian jarri zenutenetik, asteko bi ordu horiek mementu gozoz betetzen dizkiguzuelako. Zuen harrera eta jarrera dira gure jarraitzeko gogoen arrazoiak. Zorionak, eta beste hainbat urtez!

Plazara Dantzarako ikasleak

Aulki hutsak Gabonetan

Gabonak datoz eta aulki huts bat dago etxean. Nola kudeatu edo bizi Gabonak dolu prozesu sendo batean zaudenean?

Familia osoa bilduko da eta nik ez dakit nola azaldu. Gainezka nago, haserre nago, ez dakit zer egin, errudun sentitzen naiz.

Umeak, familia kideak eta maite ditudan pertsonak egongo dira; ez nuke nahi ospakizun giroa zapuztu, baina garrasiak eta tristurak gainezka egiten didate.

Ezin naiz isilik egon, ezer gertatu ez balitz bezala; eta besteek zer pentsatzen dute egoera guzti honen inguruan?

Bai, bera oroituko dudanez, aulki huts bat ipiniko dut Gabonetan, bere hutsuneari lekua eginez. Isuri daitezen utziko diet malkoei. Bere oroimen xamur eta ederra nahi dut azaldu, azken finean, dolu prozesuan nagoelako.

Horrexagaitik familiarekin hitz egingo dut. Isiltasunak eta dena ongi balego bezala jokatzek ez digu laguntzen galeraren ostean dauden sentimenduak azaleratzen. Isiltasun dolu partekatu honek sufrimendu

gehiago sortzen baititu, dolu minak disimulatzeak benetan mingarriak baitira. Horrexegaitik, aurtan, hutsune horri aurre egiteko, nire maitasun hutsune minei lekua egiteko, aulki huts bat ipiniko dut plater eta guzti Gabonetan, maite zaitudalako eta ezin dudalako zure hutsuneak utzitako mina disimulatu.

Gonbidatuak zaudete abenduaren 21ean, 18:30ean, kultur etxera etortzera. Hitzaldia eta bere testigantza pertsona emango ditu dolu prozesuetan aditua den Iñaki Arregik.

Almaur Elkarte

Egin zenutelako gara!

Herriko Antzokia goraino beteta zegoela eman genuen 1950-1990 urteetako Elgoibarko euskalgintzaren berri. Ordubeteko bideoan, besteak beste, Elgoibar gerraurrean herri euskalduna zela entzun genuen; gerraostean euskaraz egitea debekatu zutela eta asko sufritu zenutela ere esan diguzue; jakin dugu, baita ere, 1950ean ekin zenitela gure herrian

euskaltasuna berreskuratzeko ekimenari; eta, batez ere, elgoibartarron euskaldun izateko nahia da bideoan ikusi, entzun eta sentitu duguna. Erderak ez itotzeko izan zenuten egiteko grina.

Eskerrik asko. Eskerrik asko egin zenuten guztiarengatik. Izan ere, zuek egindakoari esker gara. Horregatik antolatu dugu Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak *Egin zenutelako gara!* ekitaldia. Egin zenutenaren berri emateko. Zuekin egoteko. Zuei eskerrak emateko. Poza izan zen, beharbada, abenduaren 1ean gehien sentitu genuena. Poza eta emozioa, oholtaza gainera igo zinetenon artean, eta baita eserleketan zegoen jendearen artean ere.

Bi bideo prestatu ditugu Herriko Antzokian bizi izan genuena betikotzeko.

OHARRA: Nahiz eta bideoetan azaldu, oroiarriak banatzerakoan Pilar ikastetxea aitatzea ahaztu zitzaigun. Barkatuko diguzue ikastetxe horretan euskalgintzan jardun zenutenok.

Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko Udala

LAGUNAK
colchonaria textil hogar

**Gabonetan egin etxeko guztiei tokia!
Ikusi gure mahai eta aulki tolesgarriak.**

4 aulki
15zm-tan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Erosi zure oparia Aramburun
eta 250 euroko 2 baleren
zozketan parte hartu!

ARAMBURU

**Gabon
zoriontsuak
opa dizkizuegu!**


250€

250€

943 742 535

@aramburubixidenda

Arregitorre inguruan txakurrei kalte egin nahian dabiltzala salatu du txakur-jabe batek



Txakur-jabe batek salatu du Arregitorre inguruko bizilagunen bat txakurrei kalte egiteko tranpak ipintzen ari dela auzoan. Txakurra paseatzera irten zirenean ikusi zuten txakurrak ahoan zerbait zeukala, eta ondo begiratuta konturatu ziren iltzez beteriko haragi zati bat zela. Albaitariarengana eraman zuten txakurra, eta erradiografia bat egin zioten, urdaila ikusteko. Iltzerik ez zeukan, baina bai aurreragoko egunetan jandako orratzak. "Zorionez, albaitariak

ipinitako tratamenduarekin dena kanporatu du gure txakurrak. 14 urte ditu eta ebakuntza egin behar izan baliote, seguru ez litzatekeela gaur gurekin egongo", esan du txakur-jabeak. Salaketa jarri du Udaltzaingoan, eta bizilagunei ohartarazi nahi die kontuz ibiltzeko. Jakitun da herritar asko hasarre daudela herriko leku asko txakur kakaz beteta egoten direlako, baina uste du horrelako ekintzek ez dutela txakur kaken arazoa konpontzen, eta aldiz, txakurren bizitza arriskuan jartzen dela.

Elgoibarko eta Mendaroko odol emaleak omendu dituzte



Odola ematen duten herritarrei omenaldia egin zieten abenduaren 2an, Elgoibarren eta Mendaron. Hamazazpi izan ziren omenduak Elgoibarren, eta bi Mendaron. Maria Antonieta Gallastegi Martinez da Mendaroko omenduetako bat, 25 aldiz odola emateagatik, eta Idurre Arakistain Albizu bestea, 40 alditan odola emateagatik. Hauek dira Elgoibarkoak: 25 donazio: Endika Astigarraga Alberdi, Ane Astigarraga Garate, Alexander Bilbao Aldekoa-Otalora, Esther Egaña Rementeria, Maitane Elorza Barbara, Erika Lehr Elorza,

Eduardo Morales Borreguero, Purificacion Morales Duran, Mikel Olaizola Oñederra. 40 donazio: Rita Egaña Rementeria, Beatriz Fernandez De Jauregi Muruamendaraz. 50 donazio: Gerardo Araujo Daquinta, Ibai Etxabe Mujika, Angel Eguren Belaustegi, Jesus Mari Makazaga Eizagirre, Joseba Manzanos Gil. 60 donazio: Maria Jesus Gurrutxaga Arriola. Hurrengo odol ateratzea hilaren 22an egingo dute Elgoibarren. Txanda hartzeko 623 328 408 Whatsapp zenbakira idatzi behar da.

Sei saski zozkatuko ditu Txankakuak Gabonetako kanpainan

Txankakua merkatari elkarteak Gabonetako kanpaina jarri du martxan aurten ere, eta horren barruan, produktuz beteriko sei saski eta erosketa bonotan 1.800 euro zozkatuko dituzte. *Elgoibarren bizi, erosi, herriak irabazi* da elkartearen lema, eta dendariak herritarrei eskaintzen dieten gertutasuna nabarmendu dute. Herritarrei konfiantza hori eskertzeko asmoz jarri dute martxan kanpaina.

Hortaz, abenduaren 22ra bitartean Txankakuaren dendetan erosten dutenek txartel bat jasoko dute beraien izen-abizenak eta telefonoa zehazteko, eta horrekin hartuko dute parte otarren zozketan. Dendetan egongo diren kuxketan lagako dituzte euren datuekin betetako txartelok. Horien zozketa abenduaren 22an egingo dute, eguerdian, eta egun berean jakinaraziko diete irabazleei telefonoz sarituak suertatu direla.

Era berean, 1.800 euro zozkatuko dituzte erosketa bonotan, eta horretarako boletoak ere dendetan eskuratuko dituzte herritarrek, Gabonetako kanpainan erostearen truke. Hamar erosketa-bono zozkatuko dituzte: 500 euroko bi



eta 100 euroko zortzi. Urtarrilaren 9an egingo dute bonoen zozketa, notario aurrean.

Horrez gain, aste honetan amaitu da Txankakuaren Ginkana, eta gaur egingo dute 5.000 euroko erosketa bonoen zozketa. 1.000 euroko bono bat eta 200 euroko 20 bono zozkatuko dituzte.



'Aulki hutsak' egitasmoa antolatu dute abenduaren 21erako

Etxe askotan aulkiak hutsik egongo dira Gabon hauetan, eta egoera hori kudeatzen ikasteko saioa antolatu dute hilaren 21erako Almaur eta Bihotzetik elkarteek. Elgoibarko saioa Iñaki Arregi elgoibartarrak gidatuko du. Kultur Etxean izango da, 18:30ean, doan, baina antolatzaileek eskatu dute aurrez izena emateko. Interesatuak telefono honetan eman behar dute izena: 627 117 819

Palestinaren aldeko manifestazioa egingo dute bihar

Palestinari elkartasuna adierazteko manifestazioa antolatu du herritar talde batek biharko. Gazako genozidioa salatu eta Palestinari babesa ematea du helburu biharko deialdiak. 19:00etan abiatuko da manifestazioa, Maalako parketik.

Itziar Arrieta Jauregi markinarrak irabazi du Danobatgruppen lehiaketa

Euskaraz izango gara lelopean antolatu zuen lehiaketa Danobatgroup Kooperatiba Taldeak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta gizarte osoari zuzendu zitzaion lehiaketa, eta Itziar Arrieta markinarrak irabazi du: produktu ekologikoz osatutako otarre bat jaso du saritzat. Orain dela 23 urtetik hona ari da kooperatiba talde hau bere egunerokoa euskaraz izan dadin lanean, eta 2021-2024ko plan estrategikoaren markoan ari da euskara planeko erronkak eta helburuak lantzen. Danobatgroupen harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu, baina Euskal Herriko lantegietako langileekin, hornitzaileekin, bezeroekin, ikastetxeekin eta administrazioekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du. Horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituzten planak eta lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.



Herritarren ahotsak jaso dituzte Elgoibarren eta Mendaron, inteligentzia artifizialak euskaraz ikas dezan

Makinei eta adimen artifizialari euskaraz erakusteko, ahots asko eta askotarikoak behar dira, eta ahots horiek biltzeko sortu dute *Gaitu* egitasmoa Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak (*gaitu.eus*). Egitasmoarekin bat egin dute Elgoibarko eta Mendaroko Udalek eta Elgoibarko Izarra eta In Leike kultur elkarteek, eta Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan egin zituzten ahots grabazioak. Elgoibarren Aita Agirre kulturgunean jarri zuten grabaziorako lekua. Hamazortzi elkarte zein erakundetako ordezkariak hartu zuten parte ahots-grabaketetan eta hala nahi izan zuten herritarrek ere izan zuten grabazioak egiteko aukera. Elkarte batzuek euren kabuz ere egin



dituzte grabazioak, Haritz dantza taldekoek, haurreskolakoek edo AEK euskaltegiekoek esaterako. Brillat musika taldeak Kultur Kafean eman zuen kontzertuak eman zion amaiera ekitaldiari. Mendaron, Jubilatuen ondoko lokalean egin zituzten grabazioak, norberak bere sakeleko telefonotik.

Ekimenaren sustatzaileek gogoratu dute edozeinek egin dezakeela bere ekarpena edozein momentutan *gaitu.eus* webgunean bere ahotsa grabatuta edo besteenak balioztatuta.

Presoen eskubideak bermatzeko eskatzeko kantaldia antolatu du Elgoibarko Sarek

Elgoibarko Sarek kantaldia antolatu du abenduaren 24rako. Modu horretan preso, errefuxiatu eta deportatuen eskubideak "behingo" errespetatu daitezela eskatuko dute; salbuespenezko legea bertan behera laga eta euskal presoetarako bidea onartzeko, "beste preso guztiei onartzen zaien maila berean".

Bereziki Josu Lariz elgoibartarra gogoratu nahi dute, herrira itzuli ezinda dagoena. Herritarrei dei egin diete lotsak etxean laga eta kantaldian parte hartzera. 19:00etan izango da, Kalegoen plazan.

Era berean, abenduaren 29an hileko azken barikuko ekitaldia egingo dute.

23. Korrikarako laguntzaile-txartela eta materiala eskuratzeko aukera dago Elgoibarren, AEK-n

Falta dira oraindik hilabete batzuk martxorako, 23. Korrika Irunen abiatzerako, baina Elgoibarko AEK euskaltegian hasi dira motorra berotzen. Batetik, 23. Korrikako materiala jarri dute salgai, eta bestetik, Korrika-laguntzailea txartela egiteko aukera ere zabaldu dute. Korrikako materiala erosi nahi duenak AEK euskaltegiak Kurutzelaegi kaleko 10. zenbakian duen lokaletik pasatu beharra du, aste barruan, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Korrika-laguntzaile txartela, berriz, 15 euro ordainduta eskuratu daiteke, eta txartela duenak astero egingo dituzten zozketetan parte hartu ahal izango du, bai eta deskontuak eskuratu ere Korrikaren online dendan, AEKren euskaltegi eta barnetegietako eskaintzan eta *Aizu!* aldizkarian.

AEK euskaltegian bertan egin daiteke hori guztia, baina eskaerak mezu elektronikoko bidez,



telefonoz edo online bidez egiteko aukera ere eman dute. Hona harremanetarako bideak: posta elektronikoa (elgoibar@aek.eus), telefonoa (607 601 423) eta webgunea (www.korrika.eus). Era berean, abenduaren 22an postua ere jarriko dute King Kong parean materiala saltzeko (19:00-21:00).

Adinekoen zaintzari buruzko hitzaldia emango du

Xanti Ugarte Gipuzkoako Senideak plataformakoak Elgoibarren, hilaren 19an



Xanti Ugarte Gipuzkoako Senideak plataformako kideak adinekoen zaintzari buruzko hitzaldia emango du abenduaren 19an (martitzena), Elgoibarren. Elgoibarko Duintasuna Elkarteak eta Gipuzkoako Senideak plataformak antolatu dute hitzaldia elkarlanean, eta *Adinekoen zaintza duina al da? Bakarka ez dago irteerarik* jarri diote izenburua. Zaintzaren gaia azalerratu egin behar dela dio Ugartek eta gizarte mailako eztabaida bati ekin behar zaiola lehenbailehen. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, hitzaldia, 18:30ean.

'Mintzalaguna' egitasmoa martxan jarri nahi dute Mendaron

Indarrak batu eta Mendaron ere *Mintzalaguna* egitasmoa martxan jartzeko ahalegina egin nahi dute Mendaroko Udalak, UEMAK, In Leike kultur elkarteak eta AEK euskaltegiak, eta hasita daude promozio lanean. Euskaraz berba egiteko zailtasunak dituztenei laguntzeko sortu nahi dituzte Mintzalagun taldeak, eta horretarako laguntza jaso nahi dutenak eta euskara emateko prest daudenak behar dituzte. Egitasmoan parte

hartzea doan da, baina baldintza bat bete behar da: euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila bat izatea. Dinamika zera da: astean ordubetez elkartzea, euskaraz egiteko. Izena emateko hiru bide zabaldu dituzte: aurrez aurre (udaletxeko harreran); 652 764 499 telefonora deituta (16:00etatik aurrera); eta posta elektronikoz mendaroeuskaltegia@gmail.com helbidera idatzita.

ZUEI ESKER GARA

✍️ Ainhoa Andonegi

👤 Asier Orbea

1950etik 1990era bitartean euskara bultzatzeko lanean jardun zutenei aitortza egin zieten abenduaren 1ean, Herriko Antzokian, Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatutako 'Egin zenutelako gara' ekimenean. Haiek egindako lanari esker gara gaur euskaldunak, eta Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan eskertu nahi izan zieten garai hartan eginiko ahalegina. Goraino bete zen Herriko Antzokia, eta une hunkigarriak bizi izan ziren. Argazki guztiak, dokumentala eta ekitaldiko bideoak ikusteko: barren.eus



Haiek egin zutelako gara gaur euskaldunak, eta horregatik eskerrak eman zizkieten Elgoibarko Izarrak eta Udalak herriko elkarte eta eragileei. Ez ziren gutxi izan 1950etik 1990era bitartean Elgoibar euskaldunagoa izateko lanean aritu zirenak, eta garai hartan egindako lanaren aitortza jaso zuten guztiek. Asko izan

ziren oholtzan, baina horrelakoetan gertatu ohi da norbait ahaztea ere, eta ahaztutako horiek ere izan zuten beren tarteak. Garazi Ayestak aurkeztu zuen saioa, eta osagai desberdinak izan zituen: Alfonso Guillo eta Gabik zabaldu zuten ekitaldia kantuan, eta segidan Badihardugu elkarteak prestatutako dokumentala proiektatu zuten. Jarraian hasi ziren



omenduak oholtzara igotzen, eta tarteka musika, antzerkia eta dantza saioak txertatu zituzten. Haritz dantza taldekoek egin zuten dantza, garai hartako txistularien erritmora; Taupadakoek hitzik esan gabe asko esan zuten mikro-antzerkia eginez; Angel Ugarteburuk bertsotan jarri zuen antzokia, eta ez edonola gainera, bi ahotsetan;

Txomin Mujikak maisutasunez jo zuen txistua; Ixidor Solupek bertso kantatu eta poesia bat errezitatu zituen Josu Rodriguez ilobarekin, eta Uxue Alberdik ekitaldirako espreski sortutako testua irakurri zuen. Orriotan bildu ditugu omendu guztiak. Oroigarriak banatu zituen mimoa, argazkietan ageri dena, Nora Garate Larrañaga.



Gerraurreko euskaltzaleak: Garbiñe Osoro,
Garbiñe Uriguen eta Mikel Osoro.



Eliza: Victoriano Etxabe eta Koldo Ugarte.



Gau Eskola: Ander Soraluze, Manex Etxeberria,
Lolita Canales eta Maite Vallejo.



Udal Euskaltegia: Susana Gurrutxaga - Idoia Azpilikueta.
AEK euskaltegia: Izaskun Belategi - Amaia Larrañaga.



Euskara ikasleak: Josean Gomez, Marian Exposito
eta Martin Dominguez.



Elgoibar Ikastola:
Jone Etxabe.



Pilar ikastetxea: Nekane Aranburu - Amaia Iñurrieta. **Pedro Muguruza ikastetxea:** Andoni Segundo.
Institutua: Iñasio Garmendia. **Urasandi ikastetxea:** Ana Castilla. **Meka:** Jose Mari Bastida.



Danobat: Ana Artetxe.
Etxepe: Karmelo Bilbao.



**Santa Eskeko Etxegiña
taldea:** Jon Peli Uriguen.



Ongarri kultur elkarte:
Ramon Mujika - Gloria Mugertza.



Haritz E.D.T.: Iñaki Gil - Iera Larrañaga. Elorra dantza taldea: Ixidor Solupe. Elgoibarko Izarraren dantza taldea: Marisabel Aizpurua. Elizaren dantza taldea: Iñaki Gorostiza.



Pako Juaristiren antzerki taldea: Patxi Lizarralde. Taupada: Jose Mari Larrañaga - Edurne Lasa. Ekekei: Iñaki Odriozola - Xabi Ansola - Mikel Osoro.



Lurgabe musika taldea: Ihintza Otaño - Maria Luisa Zubiaurre - Lander Pagola - Regina Arrieta. Koska: Gabi Agirregomezkorta.



Gaztetxea: Zigor Palacios. Zazpiki Irratia: Edurne Aranburu. Juventud Elgoibarresa: Jose Ramon Ezenarro.



Elgoibarko Izarra: Mila Oartzabal. Bertsolaritza: Angel Ugarteburu. Txistu Eskola: Mari Karmen Azpiazu. Aubixa: Maritxu Loiola.



Elgoibarko Udala: Juan Mari Eguren.



Elgoibarko Berbetia: Jesus Mari Makazaga. Oroigarria ematen, Amaia Sastre, Elgoibarko Izarrako lehendakaria.



Badihardugu Elkarte: Aintzane Agirrebeña. Oroigarria ematen, Maialen Gurrutxaga, Elgoibarko alkatea.



ANTONIO TURIEL

Zientzialaria eta
energia gaietan aditua

✍️ Ainhoa Andonegi

Energia berriztagarrien inguruan duen ikuspegi kritikoagatik eta egiten ari den dibulgazio lanagatik ezaguna da Antonio Turiel CSICeko zientzialaria. 'The Oil Crash' blogaren sortzailea da eta 'Petrokalipsia' liburuaren egilea. Karakate Bizirik taldeak antolatuta, hitzaldia eman zuen eguaztenean musika eskolako auditoriumean Antonio Aretxabalarekin, eta besteak beste, energia berriztagarriek dituzten mugez ohartarazi zuen.

“Ez da posible
hazkunde infinitoa
proposatzea,
planeta finito
batean”

Energia gehiegi kontsumitzen dugula diozu eta datozen urteetan kontsumoa txikitu beharko dugula.

Energiari lotuta daukagun arazo larriena da erregai fosilak gutxitzen ari direla. Petrolioaren produkzioa jaisten ari da, eta ikasi egin beharko dugu petrolio gutxiagorekin bizitzen. Ikatzaren produkzioak ere goia jo du, eta gasari ere urte gutxi batzuk geratzen zaizkio goia jotzeko. Honek

guztiak mendebaldeko gizartearentzako energia nahikorik ez egotea dakar, eta alternatibak aurkitu beharko dira. Trantsizio energetikoa ezinbestekoa da; energia iturri berriak aurkitu behar ditugu, bereziki, Europan.

Energia berriztagarriak aurkezten zaizkigu alternatiba moduan, baina zu ez zaude oso konbentzita. Zergatik?

Energia berriztagarriek gabezia tekniko asko dituzte, eta hein handi batean erregai fosilen beharra dute. Energia berriztagarriak elektrizitatea sortzeko pentsatuta daude bereziki, eta elektrizitatearen kontsumoa 2008tik jaisten ari da. 15 urtean ari da kontsumoa jaisten! Orduan, zertarako behar dira horrenbeste aerosorgailu eta plaka fotovoltaiko gero eta elektrizitate gutxiago kontsumitzen badugu?. Beti galdetzen diot jendeari kontsumitzen den energia kopuru guztitik zenbat uste duen dela elektrizitatea. Jendeak uste du %60 inguru dela elektrizitatea, baina egiaz %20 da. Elekrikoa ez dena elektrifikatzea oso zaila da, eta saltzen digute auto elektrikoak erabili ahal izango ditugula baina hori gezurra da. Beraz, errealitateak erakusten digu ez dagoela benetako energia alternatiborik. Aurrera egiteko daukagun aukera bakarra desazkundea da; kontsumoa murriztu behar dugu. Eta murriztu egin beharko dugu bai ala bai, gero eta erregai gutxiago dagoelako.

Urteetan ari gara entzuten erregai fosilak gutxitzen ari direla, baina aurreikusi al daiteke materialak noiz agortuko diren betiko?

Pentsakera hori aldatu egin behar da. Jendeak uste du petrolioaren azken tanta lortzen den eguna izango dela arazo, baina arazoa da petrolioaren produkzioa jaisten hasten den eguna, eta horra iritsita gaude. Imajina ezazu esaten dizutela soldata %3 jaitziko dizutela urtero. Urteak pasa eta kobratzen jarraitzen duzu, eta ez zara Ora iristen, baina kontua da gero eta gutxiago kobratzen duzula, eta hilabete amaierara iristea gero eta gehiago kostatzen zaizula. Petrolioarekin gauza bera gertatzen ari zaigu. 2018an goia jo zuen eta ordutik produkzioa jaisten ari da, eta jaitziera hori urteetan luzatuko da, baina argi eduki behar dugu gero eta gutxiago dagoela eta gero eta kopuru txikiagoarekin bizitzen ikasi beharko dugula. Eta hori egin behar dugu urtero haztea eskatzen digun sistema kapitalista baten

barruan. Hori da arazoa, iritsiko delako gehiago hazterik izango ez dugun eguna.

Desazkundera eta kontsumoaren gutxitzea proposatzen dituzu.

Bai, ikerketa zientifiko batzuen arabera gaur egungo bizi-mailari eutsi ahal izango diogu egungo kontsumoaren %10arekin. Horrek ez du esan nahi hori egin behar dugunik, baina bizitza estiloa aldatuta, egin ahal izango genuke. Hori albiste ona da, izan ere, datu zehatza ez dakigun arren, badirudi energia berriztagarriekin egungo kontsumoaren %30-40 inguru lortu ahal izango genukeela. Beraz, behar duguna baino gehiago izango genuke. Arazoa egungo sistema ekonomikoa da, beti haztera behartzen gaituelako. Hazteko ezinbestekoa da erregaiak kontsumitzea, eta agortzen ari dira. Petrolioaren produkzioaren jaitsierak zuzen-zuzenean eragiten dio dieselari eta gasolinari, baina batez ere, dieselari, eta dieselaren produkzioa etengabeko abiaduran ari da jaisten. Saiatu dira diesela beste modu batean lortzen, baina ez dute lortu, eta herrialde batzuetan dieselaren kontsumoa mugatzen hasita daude. Hori sekulako arazoa da, diesela delako egungo sistemaren oinarria. Diesela da garraioa, diesela da industria, nekazaritzako makineria... Dieselaren agortzeak gauza askori eragiten die, eta lehengaien prezio igoerari erabat lotuta dago. Dieselaren krisia arazo latza da. Esango nuke une honetan arazo larriagoa dela dieselaren murriztea, petrolioarena baino.

Bizitza estiloa aldatu beharra dagoela diozu energia gutxiago kontsumitzeko. Norbanakook zer egin dezakegu?

Norbanook argi eduki behar dugu garai zailak iritsiko direla, eta nik gomendatuko nuke

"Dieselaren krisia arazo latza da. Esango nuke une honetan arazo larriagoa dela dieselaren murriztea, petrolioarena baino"

une honetan arrisku askorik ez hartzea. Ahal bada behintzat, une honetan hipotekarik ez hartzea gomendatuko nuke, lana etxetik gertu topatzea, eta ez sinistea esaten diguten guztia. Hau ez da sinismen kontua, fisika da eta hau da dagoena. Engainatu egin nahi gaituzte energia berriztagarriekin. Eraiki eta eraiki ari dira, zertarako eraikitzen ari diren jakin gabe. Hau beste burbuila bat da, eta laster egingo du eztanda. Ez dago alternatibarik, eta egoera berrira egokitu beharko gara. Energia berriztagarriekin behar batzuk estaliko genituzke, baina ez denak. Desazkundera da aukera bakarra; gutxiago kontsumitzea, ez dago besterik. Arazoa, dena dela, norbanakoetatik harago doa. Indibidualki hartzen diren neurri guztiak ondo egongo dira, baina askoz arazo larriagoa da eta estatu mailan hartu behar dira erabakiak. Arazoa Europa guztian emango da, hemen ez dagoelako petroliorik, ikatza eta gasa ere gutxi... Estatu Batuetan eta Txinan ere eragingo du, baina beste modu batean. European, baina, arazoari ihes egin nahian dabilta, benetako neurriak hartu beharrean. Gamesari gertatzen ari zaiona ere larria da. Aerosorgailu erraldoiak eraiki ditu eta apurtzen hasi zaizkio. Gero eta aerosorgailu handiagoak eraiki nahi dituzte energia gehiago sortzeko, baina 40-60 tonako palen pisua gehiegizkoa da. Aerosorgailu handiekin energia hobeto aprobetxatzen da, errendimendu handiagoa ematen dute, baina



fisikoki ez dago pisu hori jasango duen materialik. Orain dela hiru urte jarritako hainbat aerosorgailu puskatu zaizkio. Nik duela urtebete izan nuen horren berri, txibatazo bat eman zidatelako, baina isilean gorde nahi zuten. Eta ez zaio Gamesari bakarrik pasatzen; enpresa guztiek daukate arazo hori. Aerogeneradore erraldoiak egin aurretik, egin nahi duten horri buruz hausnartu beharko lukete. Euskal enpresariak energia enpresak presionatzen ari dira, nola edo hala beraien produkzioa mantendu edo hazi egin behar dutelako, baina fisikoki ez da posible tamaina horretako aerosorgailuak luzera mantentzea.

Egungo energia kontsumotik zenbat lortuko genuke energia berriztagarriekin?

Hori trantsizio energetikoari erabat lotuta dago. Proposatzen dutena da ahalik eta gauza gehienak elektrifikatzea, baina hori ez da posible izango, materialak falta direlako. Auto elektrikoak ere ez dira esan duten beste haziko, eta hidrogeno berdea ere alternatiba bezala saldu digute, baina horretarako ere ez dago material nahikorik, eta gainera, ez du ondo funtzionatzen. Nik uste elektrizitate kontsumoaren %60-80 lortuko bagenu, pozik egotekoa izango litzatekeela, baina gogoratu energia kontsumo osoaren %20a soilik dela kontsumo elektrikoa. Beraz, energia guztia kontuan hartuta, energia berriztagarriekin %12-16 soilik lortu ahal izango genuke. Denak laguntzen du, hori horrela da, baina baloratu egin behar da lortuko dugun kopuru horrek merezi duen eskatzen duen neurriko txikizioa. Puntu honetara iritsita hausnartu beharko litzateke modelo ekonomikoa aldatzea.

Karakaten bi aerosorgailu jartzeko proiektua martxan da. Nola ikusten duzu?

Hausnarketa egin behar da, sistema ekonomikoa aldatzeko. Baina ikusi ditut euskal politikariak proiektu horiek saltzen. Burujabetza energetikoa aipatzen dute, baina hori dena gezurra da. Jende horrek ez nau gustuko, esaten ditudan gauzak ez dituztelako entzun nahi, baina burbuila honek eztabanda egingo du eta ez zaizkio urte asko falta. Hasita dago eztabanda egiten, eta erabat erortzen denean hasiko zaizkigu esaten biomasa dela soluzioa. Baso guztiak hustea izango da hurrengo proposamena; beste zorakeria bat,

*"Aldaketa klimatikoa ere,
hein handi batean,
hazi behar horri lotuta dago.
Kapitalismoa ez da bideragarria"*

sistema mantentzeko. Ez da posible hazkunde infinitioa proposatzea, planeta finito batean. Urtero %2-3 handitzea eskatzen zaio ekonomiari eta hori horrela izan behar ez denik ez du inork proposatzen. Aldaketa klimatikoa ere, hein batean, hazi behar horri lotuta dago. Kapitalismoa ez da bideragarria. Esan dudan guztia pasatzen ari da dagoeneko, eta pasatzen jarraituko du eta gainera konplikatzen joango da. Herrialde asko egoera oso larrian daude. Demagun Nigerian gerra zibilak eztabanda egiten duela. Nigeria. Askok mapan non dagoen ere ez du jakingo. Ba gertatuko balitz, Espainian sekulako eragina izango luke, Nigeria delako Espainiaren petrolio hornitzaile nagusia. Eta Nigeria une honetan oso egoera larrian dago; ez litzateke harriztekoa izango gerra piztea. Eta Espainiaren egoera berean geratuko lirateke beste herrialde batzuk ere, eta beste norabait jo beharko genuke guztiok petrolio bila. Une honetan mundua oso egoera desegonkorrean dago. Mundua hari batzuetatik zintzilik dago; hori da errealitatea.

Nolako mundua lagako diegu gure ondorengoei?

Hau auzoka doa. Argentinari bati galdetzen badiozu burbuila energetikoak noiz egingo duen eztabanda, esango dizu egin duela, eta Nigerian gauza bera. Hemen oraindik eusten diogu, baina 2030erako egoera izugarri okertuko delakoan nago. Ukrainako gerra aipatzen zuten gaitz guztien arrazoi bezala, eta nire ustez, une honetan daukagun arazorik txikiena Ukrainako gerra da, eta arazo potoloa da. Gurera ere iritsiko da energiaren eta erregaien muga, kontua da noiz iritsiko den, baina iritsiko dela ez dago dudarik, eta guk biziko dugu. Nik 53 urte ditut, eta ez daukat dudarik hori ikusiko dugula. Eta gure ondorengoei etorkizun beltza lagako diegu. Argi daukat irtenbide bakarra desazkundera dela, eta hori gutxiago kontsumitzetik harago doa. Desazkundera modu demokratiko batean planteatu behar da, eta ez orain arte egin den moduan: gutxiago kontsumitzeko inflazioa igoz. Hori pobretzea da, ez desazkundera.

■ 3.230.655 euroko aurrekontua onartu du Mendaroko Udalak datorren urterako, aurtengoa baino %6 handiagoa



Udalbatzaren abenduaren 1eko osoko bilkuran onartu zuen Mendaroko Udalak 2024rako aurrekontua, EH Bilduko zinegotzien botoekin. EAJkoek kontra bozkatu zuten. 3.230.655,17 eurokoa izango da 2024ko aurrekontua, aurtengoa baino %6 handiagoa. Labur esanda, aldaketa nagusi bat dakar 2024ko aurrekontuak, Enez Ezenarro alkatearen esanetan: Udaleko plantilla indartzeko egiten den ahalegina. Udaletxeko lanpostu zerrenda aldatzea erabakitzekoa dute hurrengo osoko bilkuran. EAJren agintaldian hasi zuten

lanpostuen balorazioa egiteko prozesua eta langileekin eurekin adostutakoa izan da, hein handi batean. Hutsuneak identifikatuta, hiru lanpostu sortu eta lanaldi osora ez dauden lau langileren lanaldiak handitzea aurreikusten dute herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko, eta horrek azaltzen du pertsonal gastuetan izan den 153.000 euroko gorakada. Pertsonal gastuetan egon den hazkundearen antzeko jaitziera dago inbertsio errealetan (157.000 euro), iaz inbertsio errealetan egin zen parte handi bat datorren urtean pertsonalean egingo dutelako.

SARRERAK

Sarreraren atalean, nabarmentzekoa da Udalak 1.700.000 euro jasoko dituela 2024an Foru Aldunditik, udalek urtero jasotzen duten udal partaidetzaren kontzeptupean (%6,5 gehiago). Aipatzekoa da, era berean, hondakinen kudeaketa eta kaleen garbiketagaratik Mankomunitateak

Udalari ezartzen dion urteko kuotan izandako 36.000 euroko igoerak sarreretan izango duen eragina, nahiz igoera horren parte bat bere gain hartuko duen Udalak, igoera bat-batean herritarrei aplikatzeko handiegia dela iritzita. 368.300 euro ordaindu beharko dizkio Mankomunitateari.

GASTUAK

Sei atal bereizi dituzte: Inbertsioak (190.400 euro); pertsonal gastuak (871.000 euro); kultura eta hezkuntza (511.000 euro); gizartekintza

(463.000 euro); lurraldetasuna eta hirigintza (661.000 euro); eta dirulaguntzak, izan deialdi bidezkoak nahiz nominatiboak (233.000 euro).

■ Pertsonal gastuak:

Aipagarriena pertsonal gastuetan izango den igoera da. Plantilla indartu asmo du Udalak, herritarrei ematen dizkien zerbitzuak hobetzeko. Lanpostuak baloratzeko hasitako prozesua "luzea eta delikatu" izan dela aitortu du alkateak, "ordu asko eta buruhauste handiak eman dituen".

Nolanahi ere, plantilla indartzeak honako onurak izango ditu herritarrentzat, alkatearen arabera: Udalak herritarrei ematen dien arreta

zerbitzua arratsaldera zabaltzea; udaleko gizartekintza zerbitzua eta lan administratiboak indartzea; herrian ohiko garbiketa, mantentze-eta konponketa-lanak hobetzea, brigadarako beste langile bat kontratuta; herriko elkarte eta eragileekiko harremana eta programazio soziokulturala hobetzea; eta liburutegia goizez (bi orduz) eta arratsaldez zabaltzea, bai eta irakurzaletasuna bultzatzeko zerbitzu berriak eskaintzea ere bertan.

■ Inbertsioak:

Lau puntu dira azpimarratzekoak: Herriko Enparantzan komun publikoa jartzeko egingo duten 42.000 euroko inbertsioa, kaleko argiteria berriztatzeko egingo duten 15.000 euroko inbertsioa, landaguneko inbertsioetarako gorde duten 50.000 euroko partida eta auzoetako obra desberdinetarako

gorde duten 49.000 eurokoa. Landaguneetako inbertsioen artean aipatzekoa da Gipuzkoako Mendi Federazioarekin eta Kilimon Trail mendi lasterketaren antolatzaileekin eta EHUKo arkeologo eta Leizarpeko espeleologoekin lankidetzan mendi ibilbideen sare bat garbitu eta markatuko dutela.

■ Lurraldetasuna eta irigintza (661.000€)

Lurraldetasuna eta Hirigintza atalean 100.000 euro gehiago izango dira 2024an. Hein handi batean, argindarraren garestitzeak eta hondakinen bilketa eta kale garbiketarako Udalak ordaindu beharreko kuota garestitu izanak eragin du igoera: hondakinen bilketa eta tratamendurako eta kale garbiketarako Mankomunitatearen kuota (368.300 €), kaleetako argiteria publikoaren argindarra (70.000 €), eta herriko lorategi eta

berdeguneen mantentze-lanak (55.000 €).

Ikerketa eta proiektuetarako 40.000 euroko gastua aurreikusi du Udalak 2024rako. 2023rako 18.000 euro gorde zituzten, baina 44.000 euro gastatu dira, eta kopuru hori erabili du erreferentziatzat. Diagnostikoak, proiektuak eta parte-hartze prozesuak sustatzeko erabiliko dute diru hori, besteak beste sei proiektu nagusi hauek aztertzeko:

✓ Santa Ana baseliza birgaitzeko proiektua idaztea, ondarea birgaitzeko Foru Aldundiak dauzkan dirulaguntzetara aurkezteko.

✓ Jubilatuen taberna eta biltegia egokitzeko proiektua. Lokal zuria, jubilatuen biltokia eta Lagun Betikoak tabernak hartzen duten espazioa berrantolatzea, "alde guztiak asetzeko moduan".

✓ Frontoi osteko hiru solairuetan kiroldegia egokitzeko proiektua, anbulatorioa lekuz aldatuta. 2024ko urriaren 24an amaitzen da Udalak Osakidetzarekin 30 urterako duen lagapen-kontratua. Proiektuak aurrera egingo balu, anbulatorioarentzako ezaugarri

jakin batzuetako lokal berria erosi beharko luke Udalak, eta hasita ditu kontsultak erakundeekin.

✓ Herriko Enparantzaren berrurbanizazio proiektua. Erakunde publikoei ingurune osasungarri eta inklusiboak irudikatzen eta gauzatzen laguntzea helburu duen Projekta Urbes enpresarekin jarri da harremanetan Udala, proiektua prozesu parte-hartzaile baten bidez lantzeko.

✓ Komertzioa eta ostalaritza indartzeko plana.

✓ Herriko jolas parkeen gaineko hausnarketa eta egokitzapen plana.

Horrez gain, gastuen aurrekontuetan honako beste partidak batzuk ere badaude: Landa lurren mugatzea (27.000 €), kale azpiegituren konponketa (25.000 €), landa eremuko lanak (20.000 €), baserri bideen mantentze lanetarako (15.000 €), hilerrietako konponketa eta mantentze-lanak (7.000 €) eta plagen kontrola (4.000 €).

■ Kultura eta Hezkuntza (511.000€)

Kultura eta hezkuntza atalean, besteak beste, eta diru-kopuruaren hurrenkeraren arabera, hona batzuk:

- ✓ Ikastolako ohiko gastu, garbiketa eta mantenimendua: **91.000 €**
- ✓ Santa Ana jaiak: **70.000 €**
- ✓ Urteko kultur programazioa: **60.000 €**
- ✓ Udal gimnasioa: **46.000 €**
- ✓ Ludoteka eta gaztegunerantz zerbitzua: **41.000€**
- ✓ Euskara sustatzeko programak eta ekimenak: **33.000 €**
- ✓ Kirol eta kultur eraikinen garbiketa: **25.000**
- ✓ Udalekuak: **18.000 €**
- ✓ Kontzezio azoka: **15.000 €**
- ✓ Haurtzaindegiko gastuak **13.900€**
- ✓ Ikastolako igeriketa kanpaina: **10.000 €**
- ✓ Gazteriarri zuzendutako ekimenak: **7.000 €**
- ✓ Bertsolaritza eskolak, ikastolan **4.000**

■ Gizartekintza (463.000 €)

34.500 euro gehiago izango ditu Gizartekintzan 2024ko aurrekontuak, baina hein handi batean, bizitzaren garestitzeari lotuta dago igoera. Diru partida handiena, hori bai, eguneko zentroaren kudeaketarako aurreikusitako: 236.000 euro. Etxez etxeko diru laguntzarako partida handitu egingo dute eta 140.000 eurokoa izango da 2024an, eta berdintasunaren aldeko ekintzak sustatzeko 10.000 euro erabiltzea aurreikusten dute. Aipatzekoak diren beste partida batzuk, hemen. Gizarte eta hezkuntza eskuhartzeak (50.000 €) eta eguneko zentroaren eta hiru apartamentuen aseguru, konponketa eta mantentze-gastuak (4.000 €).

■ Dirulaguntzak (233.000€)

Deialdi bidezko dirulaguntzen atalean, aipatzekoa da Udalak Arno Guraso Elkarteari deialdi bidez emango dion laguntza 9.000 eurotik 29.000 euroraino igoko dela. 20.000 euro horiek "eskolan kalitatezko zaintza zerbitzua antolatze eta eskola kirola antolatze enpresa baten kontratazioarako" emango dizkiote Arnori. Igoera handiena da hori, baina badaude beste kopuru batzuk aintzat hartzekoak, besteak beste, hauek:

Deialdi bidezko dirulaguntzak:

- ✓ Giza Larrialdietarako Laguntzak (AES): **45.000 €**
- ✓ Ameikutz musika eskola: **25.000 €**
- ✓ Etxebizitzak berritzeko eta egokitze dirulaguntzak: **16.000 €**
- ✓ Herriko elkarteek kultur arloko ekintzak burutzeko dirulaguntzak: **10.000 €**
- ✓ Etekinik gabeko gizarte intereseko ekintzak burutzeko dirulaguntzak: **10.000€**
- ✓ Herriko ekonomia sustatzeko dirulaguntza: **9.000 €**
- ✓ Anjel Bazterretxea beka Mendaroko herri izaera eta identitateari lotutako lanak gauzatzeko: **6.000 €**
- ✓ Gizarte bazterkeria eta behar larriei aurre egiteko dirulaguntza: **5.000 €**
- ✓ Auzotaxi zerbitzua irisgarritasun arazoak dituen jendearentzat: **2.500 €**
- ✓ Herriko gazteen artean etxeen alokairua sustatzeko dirulaguntza: **2.000 €**
- ✓ Euskara ikasteko jardueretarako dirulaguntzak: **2.000 €**
- ✓ Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneari, BARREN argitaratzeko: **16.000€**

Dirulaguntza nominatiboak:

- ✓ Mendaroko Txirrindulari Elkarte (Kilimon Trail, eta beste kirol jarduera batzuk antolatze): **8.000 €**
- ✓ Jubilatuen elkarte: **3.500 €**
- ✓ Auzoetako jaiak: **3.300 €**

BETI-BETIKO JAI HANDIA

✍️ Ainara Argoitia / 📸 Jose Ramon Cabrera

Urtetik urtera egitaraua antzekoa izanda ere, beti da berezia Kontzezio azoka eguneko jaia Mendaron. Baserriko jeneroa, ogi eta gozo-gauza ugari, artisau-lanak, etxe-abereak, jostailu eta apaingarriak... dozenaka postu jarri dituzte aurten ere. Giroa ere apartekoa egin zuen zapatuan eta horrek ere lagundu zuen ospakizuna are bereziagoa egiten. Dantza saioa, erromeria eta Tope Natxiok taldekoek Jon Salegi 'Sarube' zenari egindako omenaldia izan ziren beharbada eguneko ekintza jendetsuenak. Nekez ekar daiteke egunak eman zuena hamar lerrotara, baina hona hemen laburpen bat, argazkitan. Bideoa eta argazki gehiago ikusteko eta kronika osatuagoa irakurtzeko: barren.eus





Eguberrietako bertso-saiorako sarrerak, salgai

A benduaren 28an (eguna) izango da aurten Elgoibarko Izarraren Eguberrietako bertso-saioa, eta Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Oihana Iguaran, Onintza Enbeita eta Nerea Ibartzabal arituko dira kantuan, Maite Berriozabal gaitzaitzailearen esanetara. Sarrerak astelehenean jarri zituzten salgai eta abenduaren 22a bitartean erosi ahal izango dira Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturagunean duen bulegoan. Epe hori amaitu ondoren, sarrerarik geratzen bada, jaialdi egunean salduko dituzte Herriko Antzokiko leihatilan bertan. Sarreraren prezioa 13 eurokoa da (Elgoibarko Izarraren



bazkide izanez gero, 11 euro) eta bertso-saioa 20:00etan hasiko da.

Abenduaren 21ean zabalduko dute Elgoibarko parrokiako jaiotza



Abenduaren 21ean (eguna) zabalduko du Elgojaiotzak Elgoibarko San Bartolome parrokiako jaiotza mekanikoa, eta urtarrilaren 14ra arte egongo da ikusteko aukera. Aste barruan, arratsaldez bisitatu ahal izango da jaiotza, 17:00etatik 20:00etara bitartean, eta zapatu, jai bezpera eta jaiegunetan, berriz, goiz eta arratsaldez: goizez, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara. Salbuespena abenduaren 30a izango da (zapatua). Egun horretan, 09:00etatik 20:00etara izango dute zabalik.

0126 zenbakia izan da irabazlea DBHko errifan



Elgoibarko Institutuko DBHko ikasleek errifak saldu dituzte ikasbidairako dirua lortzeko Mendaroko Kontzezio Azokan, eta 0126 zenbakiarekin Lolo Lopez izan da irabazlea. Silvia Martin bere emazteak jaso zuen produktuz beteriko otarra.

Hilaren 20an eta 21ean eman beharko da izena Elgoibarko errege desfilearako

Elgoibarko parrokiako katekistek eta haien bueltako boluntarioek antolatu izan dute 35 urte baino gehiagoan errege desfilea Elgoibarren, baina aurten erreleboa eman die herritar talde batek. Eta antolatzaileek jakinarazi dute abenduaren 20an eta 21ean eman ahalko dela desfilean parte hartzeko izena, Aita Agirre kulturagunean, 17:00etatik 18:00etara bitartean. Hiru erregeak eta haien segizioa urtarrilaren 5ean iritsiko dira Elgoibarrera, urtero moduan, eta kalez kale ibiliko dira.

Iturriagaetxeberria aita-alabek irabazi dute Egin Ttap lehiaketa

Egin Ttap online bidezko lehiaketa antolatu zuen azaroaren 24tik 30era Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak, Euskal Herriko beste aisialdi talde batzuekin batera, eta zazpi egunez, gai desberdinei buruzko zazpi galdera erantzun behar izan zituzten partaideek, taldeka. Euskal Herriko 114 taldek hartu zuten parte, horietatik 14 Elgoibarkoak, eta Elgoibarren Asier eta Jare Iturriagaetxeberria aita-alaben Kilikitx taldeak irabazi zuen. Iturriagaetxeberriatarrek 24.692 puntu bildu zituzten, eta sailkapen nagusian hamabigarren postuan sailkatu ziren. Euskal



Herriko irabazleek 39.882 puntu eskuratu zituzten. Iturriagaetxeberriatarrek Donostiako Mitologik ihes-gelan parte hartzeko sarrerak jaso zituzten sarritzat.

Estreinako aldia izan da lehiaketa hau antolatzen dutena, eta antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute.



'Subcampeón' liburua aurkeztu du Zuhaitz Gurrutxagak Elgoibarren

Lau eskutara idatzi dute *Subcampeón* liburua Zuhaitz Gurrutxagak eta Ander Izagirre kazetariak, eta eguaztenean Elgoibarren aurkeztu zuten, Herriko Antzokian. C.D. Elgoibarko kamisetarekin azaldu zen Zuhaitz oholtzan, eta San Migelgo eta Elgoibarko istorioak kontatu zituen. Futbolari profesionala izateak sortutako presioak eragindako minaren inguruan ardaztu du liburua, presio horrek antsietatea, depresioa eta nahasmendu obsesibo-konpulsibo larria eragin zizkiolako, baina hori baino gehiago ere kontatzen du liburuan, beti bezala, umore dosi handitan.

'Gabonetako zuhaitz solidarioa' kanpaina abiatu dute, kalteberatasun egoeran dauden umeei opariak egiteko

Gabonetako zuhaitz solidarioak kanpaina jarri du martxan Elgoibarko Udalak Gurutze Gorriarekin elkarlanean, kalteberatasun-egoeran dauden 75 bat haurri Gabonetan opariak egiteko. Herritarren Arreta Zerbitzuan eta Udal Liburutegian jarri dituzte bi zuhaitz solidario, eta abenduaren 21era arte egongo da zuhaitz horietan opariak lagatzeko aukera. Zuhaitzetan etxetxo formako apaingarriak daude, eta barruan sartu dituzte kanpainari buruzko argibideak eta baita ume bakoitzari buruzko ezaugarriak ere. Jostailu sexista eta belikoak ez emateko eskatu dute antolatzaileek.



Huhezinemako finalistetan eta 'Entzun'-en bilduma-diskoan sartu dute Munleten 'Astindu'

Entzun musika aldizkariaren urteko bilduma mardulean sartu dute Munleten *Astindu* kantua. Urtean behin argitaratzen dute urtekaria Entzunekoek, Durangoko Azokarako, eta badu sona musikazaleen artean. Aurten, gainera, konpilazio-biniloa ere eman dute argitara urtekariarekin batera eta han ere jaso dute *Astindu* kantua, itzal handiko beste hainbat artista eta talderen lan aukeratuekin batera, tartean Mice, Petti eta Nina Coyote eta Chico Tornadoren lanak. Urtekarian, gainera, Koska talde elgoibartarraren inguruko erreportajea ere argitaratu dute.

Baina horrez hain, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatzen duen Huhezinema film laburren lehiaketako finalisten artean ere sartu dute, bideoklipen atalean. *Astindu* kantua Devo talde iparramerikarraren *Whip it* kantuen moldaketa



da, Mark Casale eta Gerald Mothersbaughen hitzetatik euskaratutakoa. Munletek aurten argitaratu du *Munlet Plays Devo* (Family Spree Recordings) biniloa, baina *Astindu* singlea ez dago disko horretan.

Landarbaso taldearen Kontari abesbatzaren kontzertua, Mendaron



Errenteriko Landarbaso abesbatzaren Kontari taldeak kontzertua emango du Mendaron abenduaren 30ean, Mendaro herriaren osaeraren 40. urtemugaren harira Udalak antolatu duen ekintza sortaren barruan. San Agustin kulturgunean izango da kontzertua, 12:30ean, debalde, eta kontzertu ondorenean Mendaroko Udalak urteurrenaren harira antolatu duen lehiaketako sariak banatuko dituzte.

Eguberrietako kontzertua emango du Udal Musika Bandak, domekan

Eguberrietako kontzertu berezia emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak domekan, abenduaren 17an, Herriko Antzokian (12:30). Gorka Mujika Urainek zuzenduko du kontzertua eta ondorengo piezak joko dituztela zabaldu dute: *Honor y gloria* (J. Silguero), *Lau urtarok* (J. Franco), *Solo en casa* (J. Williams), *All i want for Christmas is you* (Maria Carey), *I saw mamy kissing Santa Claus* (N. Iway) eta *Jingle Bells Forever* (R. Smith).

Olentzeroren traktorea atontzeko adar-hostoak behar dituzte Elgoibarren Atxutxiamaikakoek

Abenduaren 24rako antolatu du Atxutxiamaikak Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, eta dekorazio lanetarako adarrak behar dituzte, hostoekin. Baserritarren batek laguntzeko modurik izango balu, 943 741 746 (Naiara) telefonora dei dezala.

Drimuns argidun eta koloredun musika-ikuskizuna ekarriko dute Elgoibarrera abenduaren 22an

Munduko kultura ezberdinetako erritmoak ekarriko ditu Cia Majareta kale-antzerki konpainiak Elgoibarrera, abenduaren 22an. Drimuns, argidun eta koloredun musika-ikuskizunarekin datoz, eta kalez kale ibiliko dira, eguraldiak laguntzen badu behinik behin. 18:00etan hasiko dute kalejira, eta kalean gora eta behera ibiliko dira. Euria egingo balu, berriz, udaletxeko arkupeetan emango lukete ikuskizuna. Ikuskizunak badu bere gaia edo argumentua: beste planeta batetik iritsitako izakiak antzetzuko dituzte eta izaki horiek argiaren eta soinuaren bidez saiaturiko dira lurtarrekin komunikatzen. Elementu piroteknikoak eta perkusioa erabiliko dituzte horretarako. LED argidun jantziak



jantzita ibiliko dira kalean, eta koreografia eta efektu ikusgarriak egingo dituzte.



Ruper Ordorikak kontzertua emango du Mendaron urtarrilaren 7an

Mendaro herriaren 40. urtemugaren baitan antolatu dituzten ekitaldien barruan, Ruper Ordorikaren kontzertua iragarri dute Mendaroko Udalak eta Gararock taldeak urtarrilaren 7rako. San Agustin kulturgunean izango da kontzertua, 19:00etan, eta sarrerak salgai daude Mendaroko Morroskillo estankotan eta Leire jantzi-dendan, 12 euroan.

Jaiotza lehiaketa egingo dute Elgoibarren domekan, hilaren 17an

Jaiotza lehiaketan izena eman dutenek Aita Agirre kulturgunera eraman behar dituzte beren jaiotzak domekan, 11:00etatik 12:30era bitartean, Elgoibarko Kabalgata Taldetik jakinarazi dutenez. Ondoren, abenduaren 21ean ikusgai jarriko dituzte Kultur Kafea tabernan, tabernako ordutegian. Abenduaren 21etik 24ra eta 26tik 29ra bitartean egongo da jaiotza erakusketa bisitatzeko aukera.



Jon Larrañagak Gipuzkoako txapelari eutsi dio



Joan den zubian bi txapelketetan lehiatu ziren lokotx batzen aritzen diren herri kirolariak, Gipuzkoako Lokotx Batze Txapelketa eta Euskal Herrikoa jokatu baitzituzten hiru egunen barruan. Lehenengo Euskal Herriko txapelketa jokatu zuten Mungian, abenduaren 6an. Bi kirolari nafar gailendu ziren, Unai Iantzi aniztarra gizonetako eta Ainhoa Etxegarai beratarra emakumetako. Iantzik sei minutu eta 15 segundotan saskiratu zituen 50 lokotxak, eta hala, iaz lortutako txapelari eutsi zion. Aitor Blanco sailkatu zen bigarren postuan (6:50.12), Aritz Martin hirugarrengan (6:51.91) eta laugarren

postuan sailkatu zen Jon Larrañaga mendararra (6:52.35). Gutxigatik, baina ezin izan zuen berdindu iaz lortutako hirugarren postua.

Batekoz bestera izan ohi da normalean, baina aurtengoan Euskal Herrikoa jokatu ostean jokatu zuten Gipuzkoakoa. Orion izan zen, abenduaren 8an. Jon Larrañaga zen txapela buru gainean janzteko faborito argia, azken bi txapelak berak irabazi baititu, eta pronostikoak bete zituen. Sei minutu eta 56 segundotan bukatu zituen lanak mendarorarik. Iaz Aian jokatu zuten finalean baino zortzi segundo gehiago behar izan zituen Orion egin beharreko lana amaitzeko.

Emakumeen xake txapelketa jokatu dute zapatuan



Elgoibarko Zubi Ondo Xake Taldeak Emakumeen III. Xake Txapelketa antolatu du biharko (abenduak 16). Jakinarazi dutenez, 22 lehiakide eman dute izena, iaz halako bik. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian jokatu dituzte partidak, 16:15etik aurrera. Iaz Miriam Parkhurst xakelari mexikarrak irabazi zuen txapelketa hau.

Aroa Saez, taldekide berriekin kontzentratuta

Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolako gazteek kontzentrazioa egin dute jai-zubian Nafarroan, eta han ezagutu ditu taldekide berriak Aroa Saez txirrindulari elgoibartarrak. 2024 denboraldira begira doitze lanak aspaldi hasiak dituzten arren, lan karga handitzeko eta elkar hobeto ezagutzeko egon dira kontzentratuta. Elkarbizitza egun "trinkoak" izan direla azaldu dute taldetik, eta 2024rako egutegia planifikatu eta bakoitzaren helburuak finkatzeko ere baliatu dute bost eguneko egonaldia.



Buruko osasuna eta kirola izango ditu hizpide Zuhaitz Gurutzagak Urteko Kirol Sarietan

Elgoibarko Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatzeko ekitaldia egingo dute abenduaren 20an, musika eskolako auditoriumean (19:30). Ohitura duten moduan, kirolaren inguruko solasaldi batekin jantziko dute Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen sari banaketa ekitaldia, eta Zuhaitz Gurutzaga izango da aurtengo gonbidatua. Aiastiarrek buruko osasuna eta kirola uztartuko ditu berbaldian. Ondoren, herriko Kirol elkarteek era boluntarioan egiten duten lana aitortzeko Kirol Sariak banatuko dituzte. Guztira 22 sari banatuko dituzte aurten;



18 kirol elkartetako ordezkariak banatuko dituzte eta beste lau sari Udal Kirol Patronatuak.



Lizarralderi eta Arrizabalagari ihes egin die Gipuzkoako Txapelketako finalak

Gorka Lizarralde eta Kepa Arrizabalaga palista elgoibartarrek ezin izan dute Gipuzkoako Txapelketako gomazko paletako 1. mailako finala irabazi. 2019an moduan txapelkunorde gelditu dira. Danok Bat taldeko Igor Elezgarai eta Xabi Garalde gailendu ziren Zarautzen jokatu zuten finalean 19-25ko emaitzarekin irabazita. Partidaren erdialdera arte aurretik ziren markagailuan elgoibartarrak, baina ezin izan zioten aldeari eutsi, eta mutrikuarren burura joan zen txapela ordu bat eta 45 minutuko iraupena eduki zuen partida gogor eta lehiatuan. Galdu arren, Lizarralde eta Arrizabalaga pozik daude egindako lanarekin.

Zumaia-Zarautz mendi irteera, urtarrilaren 21ean



Elgoibar eta Soraluze arteko mendi ibilaldia egin zuten abenduaren 3an 30 umek eta beste horrenbeste helduk, Morkaikok eta herriko ikastetxeetako gurasoek antolatutako irteeran.

Urteko azkena izan zen, eta urtarrilaren 21ean egingo dute hurrengoa. Zumaia eta Zarautz lotuko dituzte oinez, hango mahastietan barrena.

Gipuzkoako selekzioaren eta Realaren deia jaso dute Elgoibarko futbolari gaztetxoek

Elgoibar Kirol Elkarteko lau futbol jokalariek gaztetxok Gipuzkoako selekzioaren zein Realaren deia jaso dute azken egunotan. Batetik, Gipuzkoako selekzioarekin aritzeko deia jaso dute Nahia Lopezek eta Markel Kapanagak. Azken honek bi txapelketa jokatu ditu selekzioarekin abenduan. Bestetik, Realaren deia jaso dute Jakes Gurrutxagak eta Teo Galdonak. Alebinetan diharduen Gurrutxagak Realak antolatutako teknifikazio saioan hartuko du parte, eta Realak Ordizian jokatu duen txapelketan jokatzeko ere hautatu dute. Galdonak, berriz, Amorebieta Cup Txapelketa jokatu zuen Realarekin. Final-laurdenetako kanporaketara arte ailegatu ziren txuri-urdinak, eta galdu egin zuten Porto taldearen aurkako neurketa. 2012. urtean jaiotako 350 futbolari eta 23 talde lehiatu ziren Zornotzan jokatu duen txapelketan, eta Bartzelona gailendu zen, finalean Athletici irabazita.



Jon Larrañaga, Kepa Mendikute eta Hodei Ezpeletaren taldea gailendu da Mendaroko apustu herrikoian



Hiru laguneko 18 talde lehiatu ziren abenduaren 2an Mendaron jokatu zuten herri apustuan; 54 lagun guztira. Herriko Enparantzan hasi eta Gaintxipia tontorrerainoko bidea nork azkarrago egin zuten erronka, eta Jon Larrañaga, Kepa Mendikute eta Hodei Ezpeletak osatutako hirukoa izan zen proba osatzen lehenengoa, 31:05ko denborarekin.

Partaideek hiru errelebotan osatu zuten ibilbidea. Plazatik Etxabeko bigurutzeraino egin zuten lehenengo taldekoek korrika, 1,8 kilometro inguru. Bigarren errelebokoek Berasaluze baserri parerainoko zatia egin zuten eta handik Gaintxipia artekoa hirugarren taldekoek. Apustu ondorenean, elkarrekin bazkaldu zuten erronkan parte hartu zutenek, eta Patxangoi txarangarekin jarraitu zuten gero jaia. Sailkapenak eta argazkiak barren.eus webgunean.

Urteari korrika agur esateko probak berreskuratu dituzte Mendaron eta Elgoibarren



Erregulerriaren oporraldian urteroko zita bihurtuak ziren Mendaron Haur Krosa eta San Silbestre martxa, baina COVIDaren pandemiak etena ekarri zuen, eta azkeneko hiru urtean ez dira egin. Aurten, baina, biak izango direla iragarri du Mendaroko Txirrindulari Elkarteak (MTE). Hilaren 23an izango da Haur Krosa, eta abenduaren 31 arratsaldean egingo dute San Silbestre lasterketa herrikoia. 17:00etan hasiko dira biak, eta batean zein bestean parte hartzeko izena eman beharko da, egunean bertan.

Era berean, Elgoibarren ere berreskuratu dute San Silbestre lasterketa. 2017an jokatu zuten azkenengoz, Mintxeta Atletismo taldeak antolatuta. Orain, CATT Morkaiko taldearen eskutik itzuliko da urteari korrika agur esateko ohitura. Parte-hartzaileek bost kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Elgoibarko kaleetan barrena, 17:00etan hasita. Hasteko neutralizatutako itzuli txiki bat emango dute Kalegoen plaza eta Kalebarren artean, eta hiru itzuli handi osatu beharko dituzte gero. Antolatzaileek zehaztu dutenez, ez da kronometrajetik edo sailkapenik egongo, baina bai sariak lehen sailkatuentzat eta baita hainbat opari eta zozketa ere. Izen-emateak lasterketa egunean egin beharko dira, 15:30etik 16:45era bitartean, bost euro ordainduta. Gehienez 200 lagunek parte hartu ahal izango dutela zehaztu dute antolatzaileek.

115.300 metro egin dituzte igerian Zaporeak elkartearen aldeko Igeriketa Erronka Solidarioan

Elgoibarko Igeriketa taldeak jakitera eman dutenez, 58 lagunek hartu zuten parte Igeriketa Erronka Solidarioaren laugarren aldian, joan den abenduaren 2an. Guztien artean 115 kilometro egin zituzten igerian. Antolatzaileak "oso pozik" daude ekimenak izan duen harrerarekin eta joan zen urteko langa aise gainditu dela zehaztu dute. Iaz 84 kilometro egin zituzten. Dirua jasotzeko erabili zituzten bi kuxkak Zaporeak elkarteak Donostian duen egoitzan daude dagoeneko, elkarteko ordezkari Josu Mugerzari eta Josean Oruetari eman baitzizkioten kuxkak ekimenaren amaieran. 328 euro batu zituzten Zaporeak elkartearentzat.



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, gauetan edota asteburuetan. Behar den titulazioa daukat.

631 020 169

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, arratsaldez eta asteburuetan.

646 821 678

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta jai-egunetan, orduka.

631 425 686

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Esperientzia.

624 316 594

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia handia daukat.

641 756 213

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago, goizez. Esperientzia handia. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. **624 416 776**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan jardunaldi osora. Esperientzia handia. **612 270 162**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa zein ostalaritza alorreko lanak egiteko prest nago. **663 102 472**



I. URTEURRENA

M^a Teresa Aramendi Etxaniz

2022ko abenduaren 11n hil zen, 89 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 16an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.**

Etxekoak





Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioaren Erakunde Ekonomikoa



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean hainbat konponketa egin behar dira. Jakin nahi nuke jabe guztiak ordaindu behar al duten eta denek proportzio berean ordaindu behar al duten.


Gastu komunak, edozein motatakoak direla ere, partaidetza-kuotaren arabera ordaindu behar dira, eta horrek ez du zertan berdina izan jabeakide guztientzat. Estatutuetan besterik zehaztu ezean edo Jabeen Batzarrak aho batez erabakirik hartu ezean, gastu komun horiek jabeen artean banatzeko beste moduren bat adierazi ezean. Jabeakide guztien artean gastu komunak ordaintzeko betebeharrari dagokionez, kontuan hartu behar da pisuak edo lokalak obra horien ondorioz sortzen diren gastuen ordainketari atxikita daude, legeak gastu orokorretarako ezartzen dituen baldintza berberetan. Hala ere, litekeena da jabeakideen batzarrean adostea obrek eragiten dituzten gastuak banatzea, partaidetza-kuotekin bat ez datorren moduren batean. Horretarako, batzarrean onarpen formalak behar dira.

Gomendioa. Komunitate batean estatutuak ezartzen den gastu komunaren banaketa formalak aldatzen bada legezko formalitateak kenduta, kaltetutako jabeak instantzia judizialera jo dezake bere eskubideak defendarazteko.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **June**, 6 urte bete dituzulako. Primeran ospatu genuen eguna! Muxu handi bat etxeko guztion partez eta segi orain arte bezain alai!




Zorionak, **Nahia!** Abenduaren 13an, 11 urte! Ondo pasa! Etxeko eta bereziki Hodeiren partez.



Zorionak, **Nora**, hilaren 21ean 9 urte egingo dituzulako. Segi bizitzaz gozatzeko.



Zorionak **Mara!** 6 urte! Txapel-dun! Patxo handi bat etxeko guztien partez!!



Zorionak, **bikote**, hilaren 13an 5 urte bete zenituztelako! Izebaren partez. Muxu handi bana.



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN

Aito Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

ORBEGOZO FRIJIGAILUA FDR 68



- Olorik gabe
- 65 litroko edukiera
- Potentzia 1600W / 1800W
- Tenporizadorea 60 min
- 12 programa perkonfiguratu
- Ukipen-kontrolerako Led pantaila

81,50 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Erabili meloia

Gorde erosketa-tiketa

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin



Euskaradi, auzolanari, dienei conatin



   www.kontsumobide.eus

15 BARIKUA

19:00 Bilera. Emakumearen Egunaren harira antolatu nahi duten azokari buruzko bilera izango da. Mendaron, udaletxe azpiko lokalean.

16 ZAPATUA

17:00 eta 19:00 Goazen! kontzertua, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

19:00 Palestinaren aldeko manifestazioa. Herritar talde batek deituta, Maalako parkean hasiko da.

17 DOMEKA

10:00 Diana, Elgoibarko dultzaineroekin.

12:30 Udal Musika Bandaren Gabonetako kontzertua, Gorka Mujikak zuzenduta. Herriko Antzokian.

1. *Honor y gloria* (J. Silguero).
2. *Lau urtarok* (J. Franco).
3. *Solo en casa* (J. Williams).
4. *All I want for Christmas is you* (M. Carey).
5. *I saw mummy kissing Santa Claus* (N. Iway).
6. *Jingle Bells forever* (R. Smith).

11:00 Jaiotza lehiaketa. Aita Agirre kulturgunera eraman behar dira jaiotzak. Elgoibarko Kabalgata Taldeak antolatuta.

16:15 Emakumeen III. Xake Txapelketa. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, Zubi Ondok antolatuta.

18 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa saioa: 'Emakumeak eta gizonak, elkarrekin berdintasunaren alde'. Loredi Salegik gidatuko du. Lilan.

19 MARTITZENA

18:30 Hitzaldia: 'Zaharren zaintza'. Gipuzkoako Senideak elkarteko Xanti Ugartek emango du. Duintasuna eta Gipuzkoako Senideak elkarteek antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

20 EGUAZTENA

17:00 - 18:00 Erregeen Elgoibarko desfilean parte hartzeko izen-ematea. Aita Agirre kulturgunean.

19:30 Kirol Federatuaren urteko sariak. Musika Eskolako auditoriumean. Udal Kirol Patronatuak antolatuta.

21 EGUENA

17:00 - 18:00 Erregeen Elgoibarko desfilean parte hartzeko izenematea. Aita Agirre kulturgunean.

18:30 'Aulki hutsak'. Iñaki Arregik gidatutako saioa izango da. Kultur Etxean.

22 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian.

18:00 'Drimuns, argitzen eta sentiarazten duten sorkuntzak'. Kalejira, erdiguneko kaleetan. Euria bada, udaletxeko arkupeetan.

19:00 Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokiari.

JAIOTZA MEKANIKOA

21 EGUENA

17:00 Parrokiako jaiotza mekanikoaren irekiera ekitaldia.

ORDUTEGIAK:

17:00-20:00, astegunetan.

10:00-13:00/17:00-20:00, zapatu, jai bezpera eta jai egunetan.

JAIOTZA LEHIAKETAKO LANEN ERAKUSKETA

Kultur Kafean egongo dira ikusgai lanak abenduaren 21etik 24ra eta 26tik 29ra.

ORDUTEGIAK:

Kultur Kafearen ordutegia.

Zinea
Herriko Antzokian



'La Navidad en sus manos'

15, barikua: 19:00
16, zapatua: 19:00 / 22:15
17, domeka: 19:00
18, astelehena: 21:00

'Trolls'

17, domeka: 16:30

'El maestro que prometió el mar'

20, asteazkena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

ABENDUA

15 BARIKUA
16 ZAPATUA
17 DOMEKA
18 ASTELEHENA
19 MARTITZENA
20 EGUAZTENA
21 EGUENA
22 BARIKUA

Egunez

■ Oruesagasti
Barrenetxea
Barrenetxea
■ Ibañez
Garitaonandia
Arriola
■ Fernandez
Yudego

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar) - 943 203 052

■ Fernandez:
Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.500 erregalu baino gehiago...

Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera,

Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan.**

Opari zoragarriak jaso ditugu! Eskerririk asko!



Ken Zazpiren biniloa



Inglesa ikasteko liburuak eta jolasak



Eskularruak eta zapiak



Motxilak, termikoak eta mendi-makilak



"Belarriko kilkerak" eta "Surflaria" liburuak



"Bera eta ezineko oparia" ipuinak



Opari sortak



Baloiak



Kartak eta tapeteak



Sanlo Eskubaloi taldearen bufundak



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Carla
Ibarluzea
Ramos

4 urte, Elgoibar



"Loreak"



Mia
Rescalvo
Garcia


4 urte, Elgoibar



"Zerua"


LABERINTOA

Lagundu Pintto txakurrari hezurra topatzen.



TXIKITIK HANDIRA

Lagunduko al diguzu tximeletak txikitik handira (1-6) ordenatzen?



ASMAKIZUNAK



Ea asmatzen dituzun asmakizun hauek




Hitzak dauka; soinurik ez daukat; letra bat naiz. Zein naiz? -

Salta eta salta, eta ez daukat isatsik, - - - - -

Maindire bat, harizkoa ez; guztia estaltzen du eta ura ez. - - - - -

Erantzunak: _____



- ELURRA
- IGELA
- H (LETRA)

Asmakizunak:

G R E M I O N E N G I D A



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando la Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

BIENA S.L.
AROZTEGIA


Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzunzo, 8
943 740 512
Fax: 943 743 565
bienda@pagoagasaa.com
www.pagoagasaa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasaa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485


www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,10€
hilean

12
aldiz urtean

4.885
de astero

22 Eren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada eskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.